



**2023KO MARTXOAREN 30EKO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren hogeita hamarrean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko otsailaren 23an egindako ohiko bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du ebazpenak aurkezteko formatua aldatu zenetik, erdara gero eta gehiago erabiltzen dela ikusten dutela. Beharbada neurriren bat hartu beharko dela.

**III.- 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA .-**

Alkateak 2022ko aurrekontu likidazioaren berri eman du.

2022ko aurrekontu likidazio honetan gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 12.601.081,75 €-koa da, aurrekontu emaitza 1.683.341,38 €-koa eta aurrekontu emaitza doitua 2.691.817,40 €-koa.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

IV.- KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPE-  
DIENTEA.-

Ondoren Alkateak, aurreko ekitaldiko Aurrekontutik datozen kreditu-gerakinak Uda-  
laren 2023ko Aurrekontuari txertatu izanaren ondoriozko 1 zk. kreditu-aldaketarako espe-  
dientea onesteko emandako Alkatezaren Ebazpenaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-  
TEA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko  
kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria  
zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontu-  
buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespren proposame-  
na irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.


Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak aldeko 7 botoz (EAJ-  
PNV), 6 abstentzios (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu di-  
tu:

**Lehenik.-** Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien  
bidez egin beharreko 2 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposame-  
naren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

**KREDITU GEHIKUNTZAK**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
II	Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	106.995,40 €
IV	Transferentzia arruntak	568 €
VI	Inbertsio errealak	107.027,00 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>214.590,40 €</b>





### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	214.590,40 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>214.590,40 €</b>

**Bigarren.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

#### VI.- UDAL ZERGA ETA TASEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA EGUNERATZEA.-

Hasiera batean 2001eko urriaren 25ean onartua izan zen Udal zerga eta tasen arloan laguntzak emateko ordenantza, 2021eko irailaren 30ean azken aldaketa jasan zuena, eguneratzeko proposamena egin du Ogasun Batzordeko buruak.

Aldaketa honen xedea, laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzaileak baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko, beste administrazio publikoetatik zenbait datu kontsultatu ahal izatea da. Honakoak hain zuzen ere: errenta maila, ondare maila, kontu maila eta azken 4 urteetako ondasun higiezin OHZ.

Alkateak aldatu beharreko puntuak eta txertatu beharrekoak azaldu ditu.

Osoko Bilkurak, aho batez, Udal zerga eta tasen arloan laguntzak emateko ordenantza eguneratzea onartu du.

#### VII.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEAN INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEKO HITZARMENA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun Departamentuaren eta Lazkaoko Udalaren artean informazioa elkartrukatzeko hitzarmena sinatzeko proposamena heldu da Ogasun Batzordetik.

2014an sinatutako hitzarmenean aurreikusitako informazio elkartrukeak aldatu egin dira NISAE elkarreragintasan-plataforma abian jarri delako, eta horregatik beharrezkoa da gaur egun sistema hori eguneratzea.



Lazkaoko Udala dagoeneko atxikita dago NISAE plataformari, eta gaur egun, Ogasun eta Finantza Departamentuak ematen duen informazio gehiena haren bidez lor dezake elkarreraginean.

Hala eta guztiz ere, zenbait informazio ezin da eman edota ez dago eskuragarri plataforma horretan. Hala nola, udalerriko higiezin ondare-eskualdaketei dagokiona eta kontu korrontearen zenbakiaren eglaztapenari buruzkoa.

Informazio hori elkartrukatu ahal izateko, esparru hitzarmen bat diseinatu da eta Lazkaoko Udala horretara atxikitzeko proposamena egin da gaur Osoko Bilkuran.

Hau horrela izanik, aho batez, Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun Departamentuaren eta Lazkaoko Udalaren artean informazioa elkartrukatzeko hitzarmena sinatzea erabaki du.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik galdera bat luzatu dute eta Alkateak erantzun du.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

